**16. artikulua**

Lizentziari epea amaitzen bazaio Udalak dirua itzuli edo egindako behin behineko likidazioa baliogabetuko luke, titularrak berriztapena eskatu eta Udalak onartu salbu, eta beti ez badira egin Udalaren lizentziapeko eraiketa, instalazioak eta obrak.

**17. artikulua**

Zerga honen aplikazioan ordaindutako zerga kuotak, ez dute zerikusirik hirigintza edo obren lizentzien tasak arautzen dituen Ordenantzak aginduta ordaintzen direnarekin.

**18. artikulua**

Zerga honen kudeaketa, likidazioa, ikedketa eta diru-bilketa aplikagarriak diren xedapen orokorren arabera egingo da.

VIII. XEDAPEN DEROGATZAILEA

Honako Ordenantza hau indarreko bihurtuz gero, berean ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarrik gabe utziko dira.

IX. ONESPENA ETA IRAUPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean jarriko da indarrean eta hala mantenduko da Udal Batzarrak aldaketarik edo derogaziorik erabakitzen ez duen bitartean.

ERANSKINA

1. Eraikin berrientzako zerga mota: %4
2. Lehendik dauden etxe eta baserrien erreformak: %3
3. Zerga honetatik kanpo geratzen dira:

a) Erretaila lanak.
b) Aurrekaldearen garbiketa eta hornikuntza.
c) Ikuilu eta nekazal pabiloiak.

Arrietan, 2000ko apirilaren 28an.—Alkatesa, Edurne Torrealdai Erezuma

(II-1.750)

**Artículo 16**

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice y siempre que no se hayan realizado las construcciones, instalaciones u obras sujetas a licencia municipal.

**Artículo 17**

Las cuotas tributarias satisfechas por la aplicación del impuesto regulado en esta Ordenanza, son independientes de las que corresponda satisfacer, de acuerdo con la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por licencias de obras o urbanísticas.

**Artículo 18**

La gestión, liquidación, inspección y recaudación de este impuesto se realizará de acuerdo con las disposiciones generales de aplicación.

VIII. DISPOSICION DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la misma.

IX. APROBACION Y VIGENCIA

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y permanecerá vigente hasta que le Ayuntamiento Pleno no acuerde su modificación o derogación.

ANEXO

1. El tipo de gravamen para nuevas construcciones: 4%
2. Reformas de viviendas y caseríos existentes: 3%
3. Quedan exentos del pago de este Impuesto:

a) Obras de retejo.
b) Limpieza y adecentamiento de fachadas.
c) Cuadras y pabellones agrarios.

En Arrieta, a 28 de abril de 2000.—La Alcaldesa, Edurne Torrealdai Erezuma

(II-1.750)

•

IRAGARKIA

Arrietako Udalak, 2000ko apirilaren 27an egindako ohiko batzarrean, «Udal titulartasun edo Administrazioko bideen aprobetxamendu berezia araupetu duen ordenantza»ren behin-betirako onespena erabaki zuen. Honen testu osoa ondoren azaltzen da:

**UDAL TITULARTASUN EDO ADMINISTRAZIOKO BIDEEN APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA**

**1. artikulua.—*Xedea***

Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen 7/85 Legearen 25. Artikuluan, Toki Korporazioen Ondasunei buruzko Araudian eta baterako legezko gainerako xedapenetan ezarrita dagoenaren arabera, udal titulartasun edo administrazioko bideen aprovetxamendu baterakoa, berezia eta arrunta araupetu du, haietatik ibilgailu astunak zirkulatzeak eta, batik bat, baso-ustiapenaren ondoriozko zur-garraio eta apeamenduengatiko zirkulazioak bideok narria ditzaten ekiditzeko.

**2. artikulua.—*Ezarpen eremua***

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

**3. artikulua.—*Lizentzia***

Udalaren bideak erabili behar dituzten garraiolari eta kontratariek lizentzia egokia eskatu beharko diote Udalari, ondorengoak adierazten dituztela:

a) Jabe edo kontratariaren identifikazio-datuak.

ANUNCIO

El Ayuntamiento de Arrieta, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de abril de 2000 acordó la aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora del aprovechamiento especial de caminos de titularidad o Administración Municipal, cuyo texto íntegro es el siguiente:

**ORDENANZA REGULADORA DEL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DE CAMINOS DE TITULARIDAD O ADMINISTRACION MUNICIPAL**

**Artículo 1.—*Objeto***

El Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en el artículo 25 de la Ley 7/85, de Bases de Régimen Local, el Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales y demás disposiciones legales concordantes, regula el uso común, especial, normal de los caminos de titularidad o administración municipal con el fin de evitar su deterioro como consecuencia de la circulación por los mismos vehículos pesados y en particular del transporte de madera y apeas como consecuencia de las explotaciones forestales.

**Artículo 2.—*Ambito de aplicación***

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

**Artículo 3.—*Licencia***

Los transportistas y contratistas que precisen la utilización de caminos de titularidad municipal deberán solicitar la oportuna licencia municipal, haciendo constar los siguientes extremos:

a) Datos identificativos del propietario o contratista.

b) Garraioan darabiltzaten ibilgailuei buruzko datuak, matrikula zein den zehazten dela, eta egingo diren bidaiak, bidaiako zamak eta ibilbideak, hauek kokaera-planoan azalduta.

c) Garraiatuko diren materialen bolumena, tona edo estereotan adierazita.

d) Garraioa zein egunetan hasi eta amaituko den.

e) Materialak pilatuko badira, non pilatuko diren, grafikoen bidez adierazita.

f) Zura zein menditatik aterako den eta hura non dagoen, behar denean, katastro-erreferentzia zehaztuz.

g) Egin beharreko zuhaitz-mozketarako baimena, basogintzaren arloko agintaritza eskudunak emana.

**4. artikulua.—*Debekuak***

Debeku da ondorengoak erabiltzea:

— Oruga ibilgailuak.

— Ibilgailu katedunak.

— Zoladura gainerako arrastaketa ibilgailuak.

— Gehieneko pisu gordina 30 tonatik gorakoa duten eta hiru ardatz baino gehiago dituzten ibilgailuak.

**5. artikulua.—*Ebazpenerako epea***

Lizentzia emateari buruzko prozedura ebazteko gehienezko epea hura aurreko 3. artikuluko beharkizunekin eskatzen denetik zenbatu beharreko 15 egunekoa izango da. Hau igaro ondoren, eskabideari oniritzi zaiola ulertuko da, beren beregiko ebazpenik egon ezean.

**6. artikulua.—*Tasa***

1. Udalak lizentzia eman dezan, ezartzen diren tasak ordaindu beharko dira; hori egin arte ezin ekin izango zaio erabilera edo aprobetxamenduari.

2. Tasa ez ordaintzeak lizentzia ezeztatzea eragingo du berez.

3. Udal titulartasun edo administrazioko bideen aprobetxamendu bereziagatiko prezio publikoei esker biltzen diren diru kopuruak haiek artatu, mantendu eta hobetzeko erabiliko dira.

**7. artikulua.—*Luzamendua***

Aprobetxamendua lizentzia adierazten den egunean amaitzen ez bada, luzamendua eskatu beharko da.

**8. artikulua.—*Agiriak ekartzea eta zaintza***

Garraiolariak lizentzia emateari burzko udal erabakiaren jakinarazpena edo beronen aldakia eta tasa ordaindu eta fidantza jarri duela benetakotzen duten ordain gutuna edo beronen aldakia eduki beharko ditu uneoro. Agiri horiek udaltzain edo udal arduradunei erakutsi beharko dizkiete, hauek eskatuz gero.

**9. artikulua.—*Fidantza***

Bideak erabili baino lehen, horretarako lizentzia eskatzen duenak fidantza jarri beharko du erabilpenak haiei egin diezazkien kalteak ordaintzeko.

Fidantza eskudirutan edo banku abalaren bidez jarri ahal izango da, egin litezkeen kalteei erantzuteko. Halaber, Udala ados egonez gero, fidantza aseguru polizaren bidez ere jarri ahal izango da.

Fidantzaren zenbatekoa eranskinaren arabera kalkulatuko da.

Baso batean egur-ateraketa egiteko ematen den fidantza inoiz ere ezin erabili izango da beste baso batekoa egiteko fidantza gisa, nahiz eta aprobetxamenduak aldi berean egin.

Fidantza itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea hura eskatzen denetik zenbatu beharreko hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren beren beregiko ebazpenik ez badago, hari oniritzi zaiola ulertuko da.

b) Datos relativos a los vehículos dedicados al transporte, especificándose la matrícula, así como el número de viajes a realizar, carga por viaje y trayectos reflejados en plano de situación.

c) Volumen en estéreos o Tn. de los materiales a transportar.

d) Fecha de inicio y finalización del transporte.

e) Si se va a realizar acopio de materiales, indicación gráfica del lugar.

f) Nombre y situación del monte o lugar del que provienen, especificando, en su caso, la referencia catastrasl.

g) Autorización, en su caso, para la tala a realizar expedida por la autoridad competente en materia forestal.

**Artículo 4.—*Prohibiciones***

Queda prohibido el uso de:

— Vehículos oruga.

— Vehículos cadenados.

— Vehículos de arrastre sobre firme.

— Vehículos de más de 30 Tn. de peso máximo bruto y de caminos de más de tres ejes.

**Artículo 5.—*Plazo de resoluciones***

El plazo máximo para resolver el procedimiento para el otorgamiento de la licencia será de 15 días desde que se solicita la misma con los requisitos del artículo 3 anterior, transcurrido el cual se entenderá estimada cuando no recaiga resolución expresa.

**Artículo 6.—*Tasas***

1. La licencia municipal se entenderá otorgada, en todo caso, condicionada al pago de las tasas que, en su caso, se establezcan, no pudiendo entre tanto iniciarse la utilización o el aprovechamiento.

2. La falta de pago de la tasa determinará de forma automática la revocación de la licencia.

3. Las cantidades que se recauden, en su caso, en concepto de tasa por el aprovechamiento especial de caminos de titularidad o administarción municipal se destinarán a obras de conservación, mantenimiento y mejora de los mismos.

**Artículo 7.—*Prórroga***

En caso de no finalizar el aprovechamiento en la fecha señalada en la licencia, deberá solicitarse la correspondiente prórroga.

**Artículo 8.—*Aportación de documentos y vigilancia***

El transportista está obligado a aportar, durante todo el momento del transporte, el original o copia de la notificación del acuerdo municipal de concesión de la licencia y de las cartas de pago justificativas del abono de la tasa y depósito de la fianza. Los citados dovumentos deberán ser mostrados a los agentes o responsables municipales cuando sean requeridos por éstos.

**Artículo 9.—*Fianza***

El solicitante de la licencia, con anterioridad a la utilización de los citados caminos, deberá depositar una fianza que responderá de los daños que se pudieran ocasionar por el uso de los caminos.

La fianza podrá realizarse en metálico o aval bancario que responda de los posibles daños. Asimismo, previa conformidad del Ayuntamiento, la fianza podrá realizarse mediante póliza de seguro.

La cuantía de la fianza se calculará de conformidad con el anexo.

En ningún caso la fianza para la saca de un monte podrá servir como fianza para la saca de otro monte, aún realizándose aprovechamientos simultáneamente

El plazo máximo para resolver el procedimiento de devolución de la fianza será de un mes desde que se solicite la misma. La falta de resolución expresa, transcurrido el citado plazo, tendrá efectos estimatorios.

**10. artikulua.—*Bideen garbiketa***

Aprobetxamenduaen onuradunek unero bermatu beharko dute bidea edonork eta publikoki erabili ahal izatea; horretarako, aprobetxamenduak dirauen bitartean behar diren konponketa eta garbiketa guztiak burutuko dituzte. Hala egiten ez badute, Udalak beraien pentzura burutu ahal izango ditu.

Beti ere, onuradunek zirkulazioa ez eragozteko behar diren goitapenak egin beharko dituzte. Bideak ezin oztopatu izango dira ez enbor, ez zuhaitz-abarrez eta ibilgailuek haien gainean uzten dituzten lur, harri eta abarrak kendu beharko dituzte.

**11. artikulua.—*Txosten teknikoak***

Udalaren zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egin eta bideen erabilpenaren aurre eta ondoko egoerei buruzko txostena emango dute. Txosten horien lagungarri agiri argazkidunak, planoak, ikusentzunezko agiriak eta abarrak eman ahal izango dituzte.

**12. artikulua.—*Konponketa obrak***

Txosten teknikoa ikusirik, lizentziaren titularrari egin beharreko konponketak jakinaraziko zaizkio, bai eta zein epetan burutu behar diren ere. Epe hori konponketak burutu gabe igarotzen bada, Udalak sorospidez betearaziko ditu behartuaren pentzura eta honek jarri duen fidantzari behar den kenketa egingo zaio. Hau nahikoa ez bada, kalte guztiak ordaindu arteko diferentzia eskatuko du.

Baldin eta kalteak konponezinak badira, Udalari suntsitutako ondasunen balio bereko kopurua edo egindako narriaduraren zenbatekoa emango zaio kalteordain gisa.

Udalaren bide eurak batek baino gehiagok badarabiltza eta kalteak eragiten badituzte, erantzukizunak erabiltzaileen artean banatuko dira, bakoitzari berari dagokion heinean.

**13. artikulua.—*Bitartekaritza, adiskidetza eta tartekaritza***

Udalaren eta erabiltzailearen artean kalteen balorazioaz edo haien ordainketaz aldentzerik egonez gero, alderdiek bitartekaritza, adiskidetza eta tartekaritzako prozeduren menpean jarri ahal izango dute euren burua, aurretik beren beregiko akordioa dagoela; prozedura horretarako alderdien arteko akordio, itun edo hitzarmena beharko da beti. Hala denean, prozedura horiek eragiten dituzten gastuak erabiltzailearen konturakoak izango dira.

**14. artikulua.—*Baxa adierazpena***

Behin aprobetxamendua amaituz gero, interesatuek baxa adierazpen egokia aurkeztu beharko dute Udal Administrazioan. Hori, adostasunik egonez gero, aurkezten den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondoreak.

**15. artikulua.—*Jabeen erantzukizuna***

Garraiatzen diren materialen jabeak ordenantza honetatik datozen betebeharrak betetzearen erantzule solidarioak izango dira.

**16. artikulua.—*Harrobiak, meatzaritza jarduerak eta lur mugimenduak***

Bide horiek harrobietako materialak atea eta lurrak mugitzeko erabiltzeak berekin ekarriko du jarduera horien titularrak diren enpresek bideon ibilbide osoa mantendu beharra.

Udalaren zerbitzu teknikoek aldian-aldian ikuskatuko dituzte bideak eta antzematen dituzten andegak enpresek konpondu beharko dituzte.

ERANSKINA

**1. Tasa**

70 pzta/m³ko edo 35 pzta/garraiatutako estereoko tasa ezarriko da.

**Artículo 10.—*Limpieza de caminos***

Los beneficiarios del aprovechamiento deberán garantizar, en todo caso, el uso común y público del camino, efectuando para ello cuantas reparaciones y limpiezas sean necesarias durante el tiempo que dure el aprovechamiento. En caso contrario, éstas podrán realizarse por el Ayuntamiento a costa de aquellos.

En todo caso, los beneficiarios deberán adoptar cuantas precauciones se requieran para no perjudicar la circulación, no pudiendo ocuparse el camino con troncos ni ramas de los árboles, estando obligados a retirar de la véa pública cuantos productos como tierras, piedras, etc. depositen los vehículos en la misma.

**Artículo 11.—*Informes técnicos***

Los servicios técnicos municipales realizarán vista de inspección y emitirán informes sobre el estado de los caminos municipales con anterioridad y posterioridad a su utilización. Los citados informes podrán estar apoyados en documentación topográfica, planimétrica, audiovisual, etc.

**Artículo 12.—*Obras de reparación***

A la vista del informe técnico, se pondrán en conocimiento del titular de la licencia las reparaciones que, en su caso, deban efectuarse indicándole el plazo en que deban ser realizados. Transcurrido el citado plazo sin que se hubiesen efectuado las reparaciones requeridas, el Ayuntamiento procederá a su ejecución subsidiaria a costa del obligado, con la correspondiente deducción del importe de la fianza depositada. En caso de que ésta no fuera suficiente se exigirá la diferencia hasta cubrir la totalidad de los daños.

Si los daños causados fueran irreparables, el Ayuntamiento será indemnizado en una cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro ocasionado.

En el supuesto de que sean varios los que utilicen simultáneamente los mismos caminos municipales, y existan desperfectos, se procederá a una distribución proporcional de las responsabilidades entre los diversos usuarios.

**Artículo 13.—*Mediación, conciliación y arbitraje***

En el caso de divergencias entre el Ayuntamiento y el usuario sobre la valoración de daños o su reparación, las partes, previo acuerdo expreso, podrán someterse a procedimientos de mediación conciliación y arbitraje que, en todo caso, procesarán del subsiguiente acuerdo, pacto, convenio o contrato entre las partes. En todo caso, los gastos que se ocasionen como consecuencia de estos procedimientos serán de cuenta del usuario.

**Artículo 14.—*Declaración de baja***

Una vez finalizado el aprovechamiento, los interesados están obligados a presentar la oportuna declaración de baja, que lo hará en la Administración Municipal la cual, en caso de conformidad, tendrá efectos a partir del siguiente a aquel en que fue presentada.

**Artículo 15.—*Responsabilidad de propietarios***

Los propietarios de los materiales transportados serán responsables solidarios del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la presente Ordenanza.

**Artículo 16.—*Canteras, actividades mineras y movimientos de tierras***

El uso de estos viales para actividades de extracción de materiales de canteras y movimientos de tierras llevará consigo la obligación de mantesnimiento de los caminos en todo su recorrido por las empresas titulares de dichas actividades.

Periódicamente serán inspeccionados estos caminos por los servicios técnicos municipales y los desperfectos que se observen deberán ser reparados por las citadas empresas.

ANEXO

**1. Tasa**

Se establece una tasa de 70 pts./m³ o de 35 pts./estéreo transportado.

2. **Fidantza**

Egin daitezkeen kalteei erantzuteko, aurrez fidantza ordaindu beharko da, bere zenbatekoa honako hau izango delarik:

— Lehenengo 20 estereoak ez dute ordainduko.
— 50.000 pezeta, 175 estereo arte.
— 100.000 pezeta, 350 estereo arte.
— 200.000 pezeta, 750 estereo arte.
— 400.000 pezeta, 1.500 estereo arte.
— 800.000 pezeta, 3.000 estereo arte.
— 1.600.000 pezeta, 6.000 estereo arte.

Arrietan, 2000ko apirilaren 28an.—Alkatesa, Edurne Torrealdai Erezuma

(II-1.751)

•

IRAGARKIA

Arrietako Udalak, 2000ko apirilaren 27an egindako ohiko batzarrean, «Udal Hilerriko Zerbitzuen Ordenantza Arautzailea»ren behin-betirako onespena erabaki zuen. Honen testu osoa ondoren azaltzen da:

**UDAL HILERRIKO ZERBITZUEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua**

Arrietako udal hilerria, herriarentzako zerbitzuko ondasuna izanik, Udalaren administrazio, zaintza eta zuzendaritzapean dago, beste agintaritza edo erakunderen eskumenekoak diren gaietan izan ezik.

**2. artikulua**

Udalari honako hau dagokio:

a) Hilerria antolatzea, mantentzea eta egokitzea, baita hileta-eraikin, zerbitzu eta instalazioen ardura izatea ere.

b) Hilerriaren barne araudia.

c) Norbanakoei baimena ematea hilerrian obrak egin edo instalazioak jartzeko, bai eta horiek zuzendu eta ikuskatzeko ere.

d) Hilobien emakidak eman eta edozein motatako hileta eskubideak aintzat hartzea ere.

e) Lurrak okupatzeagatik eta obra lizentziak eta hileta eskubideak emateagatik legez ezarrietako eskubide eta tasak jasotzea.

f) Osasun eta higiene arloan eman diren neurriak betearaztea, baita etorkizunean emango direnak ere.

g) Hilerriko langileak izendatzea, zuzentzea eta kargutik kentzea.

h) Hilerriaren jabe titular eta erakunde publiko izatearen ondorioz sortutako eginkizun guztiak, bere eskumena baita udal mugarte barruko aktibitateak araupetzea.

**3. artikulua**

Norbanakoei honako hau dagokie:

a) Inolako diskriminaziorik gabeko ehorzketa duina izateko eskubidea.

b) Hileta eskubideak eta bere erlijioari zein ideologiari dagozkien erritoak aukeratzeko eta egiteko eskubidea, beti ere Ordenantza honek dioena kontuan izanik.

c) Nitxoak, lur sailak eta abar edukitzea, zaintza, estetika eta apaindura publikoko baldintza egokietan.

2. **Fianza**

Como garantía para responder de los posibles daños será preceptivo el previo depósito de la fianza, cuya cuantía se establece de la siguiente forma:

— Exentos los primeros 20 estéreos.
— 50.000 pesetas hasta 175 estéreos;
— 100.000 pesetas hasta 350 estéreos.
— 200.000 pesetas hasta 750 estéreos.
— 400.000 pesetas hasta 1.500 estéreos.
— 800.000 pesetas hasta 3.000 estéreos.
— 1.600.000 pesetas hasta 6.000 estéreos.

En Arrieta, a 28 de abril de 2000.—La Alcaldesa, Edurne Torrealdai Erezuma

(II-1.751)

•

ANUNCIO

El Ayuntamiento de Arrieta, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de abril de 2000, acordó la aprobación definitiva de la «Ordenanza Reguladora de los Servicios Funerarios Municipales», cuyo texto íntegro es el siguiente :

**ORDENANZA REGULADORA DE LOS SERVICIOS FUNERARIOS MUNICIPALES**

TITULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1**

El Cementerio Municipal de Arrieta, como bien de servicio público, queda sometido a la autoridad del Ayuntamiento, al que corresponde exclusivamente su administración, dirección y cuidado, salvo en aquello que sea competencia propia de otras autoridades y organismos.

**Artículo 2**

Corresponde al Ayuntamiento:

a) La organización, conservación y acondicionamiento del cementerio, así como de las construcciones funerarias, de los servicios e instalaciones.

b) El régimen interior del cementerio.

c) La autorización a particulares para la realización en el cementerio de cualquier tipo de obras o instalaciones, así como su dirección e inspección.

d) El otorgamiento de las concesiones sepulcrales y el reconocimiento de los derechos funerarios de cualquier clase.

e) La percepción de los derechos y tasas que se establezcan legalmente por la ocupación de terrenos, licencias de obras y concesión de derechos funerarios.

f) El cumplimiento de las medidas sanitarias e higiénicas dictadas o que se dicten en el futuro.

g) El nombramiento, dirección y cese del personal del cementerio.

h) Cualesquiera otras funciones que puedan corresponderle, atendiendo a su carácter de propietario titular de los cementerios y a su condición de entidad pública, a quien compete la regulación de la actividad dentro del término municipal.

**Artículo 3**

Corresponde a los particulares:

a) El derecho a la inhumación digna en los Cementerios, sin discriminación de ningún tipo.

b) Elegir y disfrutar, en los términos de la presente Ordenanza, los derechos funerarios y los ritos que corresponden a su religión e ideología.

c) Mantener la parcela de terreno, nicho, etc., que les corresponda, en las condiciones de conservación, ornato y estética que se señalen.